

**ANEXO I****ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA****ANEXO I****PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA****Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa****Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	URIBEKOSTA BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	4
<b>arloan/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>			
<b>diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	-Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia -Teknologiarako konpetentzia -Konpetentzia sozial eta zibikoa		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	AINHOA RABANAL UMARAN eta AINHOA ETXEBARRIA AGUNDEZ	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2018-19

**Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:**

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluzio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, bai eta haien edukia nahiz forma modu kritikoan interpretatzea ere, zenbait motatako komunikazio- egoerei aurre egiteko.  2. Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta	1. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, informazio garrantzitsuena ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinetza hautatuz.

<p>interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espirtu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.</p> <p>3. Modu autonomoan gogoeta egitea hizkuntzen sistemei buruz, eta haien erabilera arauak aplikatzea testuinguruan, testuan, perpausean eta hitzean, bai eta testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan ere, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta transferentziak positiboak izan daitezen.</p> <p>4. Norberak hautatutako idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziazko gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko.</p> <p>5. Literaturako generoen, etapen eta obra nagusien oinarriko konbentzioen ezagueraz baliatzea, era horretan literatura-testuak modu partekatuan ulertzeko, literaturaondarearen bidez esperientzia indibiduala eta kolektiboa sinbolizatzeke, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeke.</p> <p>6. Gure errealitate elebiduna eta eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu, interpretatu eta balioestea, soziolinguistikaren oinarriko ezagueren bidez, era horretan jarrera positiboa izateko hizkuntzen eta kulturen aniztasunarekiko, hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko.</p> <p>7. IKTak modu kritiko eta autonomoan erabiltzea, informazioa eskuratu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.</p> <p>8. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak</p>	<p>2. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako idatzizko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinetza hautatzea.</p> <p>3. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testu soil-soilak sortzea norbaiten laguntzarekin.</p> <p>4. Bai ikasgelako eta bai eskolako eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, eta horretan, komunikazio-trukearen oinarriko arauak errespetatzea.</p> <p>5. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko idatzizko testu soil-soilak paperean nahiz euskarri digitalean sortzea norbaiten laguntzarekin eta eredu argiak oinarri hartuta.</p> <p>6. Testu, enuntziatu eta hitzak elkarrekin alderatu eta transformatu, eta hizkuntzasistemari eta hizkuntzaren erabilera-arauei buruz gogoeta egitea, ezaguera horiek ulermen-arazoak konpontzeko eta testualizazio- eta berrikusketa-prozesuak hobetzeko erabiltzea, eta, aldi berean, idazketa-sistemaren erabilera finkatzen hastea.</p> <p>7. Zikloan zehar landutako oinarriko terminologia linguistikoaren berri jakitea, eta terminologia hori testuak ulertzearekin eta sortzearekin lotutako hizkuntzaren erabilerari buruzko jardueretan erabiltzea</p> <p>8. Irakurzaletasuna lantzea, eta proposatutako testuak modu autonomoan irakurtzeko gai izatea.</p>
--	---

<p>transferitzeko, eta norberak konfiantzaz erregulatu ahal izateko hizkuntza-ikasketak.</p>	<p>9. Gai izatea bai haur-literatura klasikoko eta bai gaur egungo haur-literaturako testuak ulertzeko eta erreproduzitzeko, eta horretan, ahozko nahiz idatzizko literaturari buruzko bere ezaguerak erabiltzea.</p> <p>10. Norberaren ikasgelako eta etxe inguruko errealitate linguistikoa zein den jakitea, eta errealitate linguistiko hori balioestea.</p> <p>11. Ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak hartuz joatea, eta eskolan euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera izatea.</p> <p>12. Informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko prozesuan, norbaiten laguntzarekin informazioaren teknologiak erabiltzeko gai izatea, eskolan egunero sortzen zaizkion premiei aurre egiteko.</p> <p>13. Gai izatea baten baten laguntzarekin norberaren ikaskuntza linguistikoaz gogoeta egiteko, eta horretan, nor bere ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea.</p>
--	---

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguraren daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

**SITUACIÓN PROBLEMA** [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- **1. arazo egoera / Situación problema**
- [Ohartu gabe heldu gara](#)
  
- **2. arazo egoera / Situación problema 2**
- [Kantuz kantatzen](#)

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

- **1. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 1: OHARTU GABE HELDU GARA.**  
**1. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 1ª situación**

**Diskurtso sekuentziak**

- Deskribapen sekuentzia
- Esplikazio sekuentzia
  - Egoera/arazoa
  - Eskaera, erreklamazioa...
  - Justifikazioa

**Testu generoak**

- Kexa
- Eskabide-gutuna
- Eskabide-orria
- Erreklamazio-gutuna
- Erreklamazio-orria
- Zoriontzeko gutuna
- Barkamena eskatzeko gutuna
- Eskerrak emateko gutuna

**Hizkuntza-baliabideak**

Testuinguruaren eremuan

- Igorlearen eta hartzailearen rolak eta testuinguru soziala
  - Erregistro formala
    - Igorle/hartzaile tratamendua: agurrak
  - Igorlearen eta hartzailearen presentzia diskurtsoan
- Hizkuntza-funtzioak: gonbidatzea, eskertzea, eskatzea, zoriontzeta...

- Esaerak/esapideak
  - Kortesia-estrategiak

#### *Testuaren eremuan*

- Komunikazio-asmoaren arabera informazioa
- Ideien arteko erlazio semantikoa
  - Moduzkoa
  - Denborazkoa
  - Kausa-ondoriozkoa
- Kohesiorako baliabideak, kausa-ondorio erlazioa adierazteko
  - Testu-antolatzaileak (denborazkoen itxura duten kausalak, berariaz kausalak eta ondoriozkoak...)
  - Puntuazioa
  - Lexikoa (arrazoi, eragile...)

#### *Perpauaren eta hitzaren eremuan*

- Erakundearen eremuko lexikoa
  - Zehaztasuna, lexiko espezializatua
    - Hitz elkartuak
    - Hitz eratorriak
    - Maileguak
  - Laburtzapenak: siglak, ikurrak eta laburdurak
- Zenbakien idazkera: data, ordua, helbidea...
- Deklinabidea
- Puntuazioa

- **2. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 2: BAGA, BIGA, HIGA**  
**2. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 2ª situación**

#### **Literatura**

Euskal ahozko literaturako generoak eta obrak, XX. mendeko euskal poemagintzako mugimenduak, autoreak eta obrak

#### **Diskurtso-sekuentziak**

- Deskribapen-sekuentzia
  - § Informazio-kategoriak
- Esplikazio-sekuentzia
  - § Ideia nagusiak
    - Arrazoiak (informazioak, adibideak, norbere sentimendu eta gustuak)

#### **Testu-generoak**

- Balada
- Maite-kantua
- Kopla zaharra
- Bertsoa
- Atsotitza

- Poema

### **Hizkuntza-baliabideak**

#### *Testuinguruaren eremuan*

- Komunikazio-asmoaren eta hartzailearen ezaugarrien baitan hartzailearen arreta eskuratu eta mantentzeko baliabideak
  - § Baliabideak fonikoak
    - Errima
  - § Baliabide semantikoak
    - Metafora
  - § Baliabide gramatikalak
    - Errepika
  - § Baliabide paralinguistikoak
    - Ahotsaren erabilera
    - Gorputzaren jirakoak
  - § Galdera erretorikoak eta elkarrizketa

#### *Testuaren eremuan*

- Komunikazio-asmoaren baitako informazioa/ideiak
  - Komunikazio-asmoaren baitako informazioaren/ideien antolatzea
- Perpausaren eta hitzaren eremuan*  
Lirikaren eremuko lexikoa

- **3. unitate didaktikoa / Unidad didáctica 3: HITZATZEA**  
**3. egoera arazoa garatzen du / Desarrolla la 3ª situación**

### **Diskurtso-sekuentziak**

- Deskribapen-sekuentzia
  - § Gaia eta azpigaiak edota informazio-kategoriak
- Narrazio-sekuentzia
  - § (pertsonaiak,) hasierako egoera, arazoa edo gatazka, ekintzak eta amaierako egoera
- Argudio-sekuentzia
  - § tesia eta argudioak

### **Testu-generoak**

- Iritzi-artikulua
- Lagunarteko gutuna
- Ahozko azalpena
- ...

### **Hizkuntza-baliabideak**

#### *Testuinguruaren eremuan*

- Pertsona-deixia: igorlearen eta hartzailearen presentzia diskurtsoan.
- Modalizazioa: igorleak esandakoarekiko duen jarrera islatzeko hizkuntza-baliabideak: ziurtasuna, derrigortasuna, posibilitatea, balorazioa.

- Erregistroa

*Testuaren eremuan*

- Komunikazio-asmoaren araberako informazioa/ideiak
- Komunikazio-asmoaren araberako informazioaren/ideien antolatzea
- Paragrafoa
- Jarraipen tematikorako hizkuntza-baliabideak eta elipsia.
- Puntuazioa
- Testu-antolatzaileak

*Perpauaren eta hitzaren eremuan*

- Oinarrizko zuzentasun-arauak

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Ahozko eta idatzizko testuen bitartez, metodologia eraginkorra erabiliko dugu. Eguneroko lana asko baloratuko dugu, baita banakako zein taldeko lana ere. Ikasleen motibazioa bultzatuko dugu, helburuak jakinaraziz, zein negoziazio jarduerak proposatuz, besteak beste. Ikaskuntza autonomia izaten ahaleginduko gara, eta ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatuko dugu.

**OHARRA:** Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

**Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

**Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

**HTB:** Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

**Hezkidetzak (Aniztasuna):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.

**Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

**Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.

**IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Idazmena zuzentzeko irizpide bateratuak, mintegi guztiok azterketetan erabiliko duguna:

Idazmena zuzentzeko irizpide bateratuak, mintegi guztiok azterketetan erabiliko duguna:

HIZKUNTZA PROIEKTUA - ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK		
ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK	%100	%0
<b>ITXURA ETA ANTOLAKUNTZA</b>	-Paragrafoak antolatuta. -Garbi eta txukun dago -Izenburu egokia -Orri bazterrak daude	-Paragraforik ez dago -Narratsa. -Izenbururik ez dago -Orri bazterrik ez dago.



<b>KOHERENTZIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Informazio egokia da helbururako.</li> <li>-Testu mota errespetatzen da</li> <li>-Kontraesanik eta errepikapenik ez dago</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Informazioa ez da egokia helbururako</li> <li>-Testu ezaugarriak ez ditu errespetatu</li> <li>-Kontraesanak eta errepikapenak daude</li> </ul>
<b>KOHESIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Paragrafo 1 ideia 1</li> <li>-Ideiak ondo lotuta daude (lokarriak/ antolatzaileak)</li> <li>-Puntuazioa zuzena da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Paragrafo nahasiak</li> <li>-Ideia solteak eta lokarririk ez</li> <li>-Puntuazioa desegokia da</li> </ul>
<b>ZUZENTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ortografia, lexikoa eta gramatika.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Akats nabarmenak: ortografia, lexikoa, gramatika</li> </ul>
<b>HELBURU KOMUNIKATIBOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Idazlanak mezua argi eta ondo transmititzen du. Testua ondo landua da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Idazlanak ez du mezua ondo transmititzen. Testua landu gabe dago.</li> </ul>
<b>BETEBEHARRAK</b>		
<p>Lana orri zuri batean entregatuko dute.</p> <p>Lana epe barruan entregatuko dute.</p>		

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Idatzizko probak (gramatika/idazmena/ulermena)</li> <li>● Entzumena lantzeko probak</li> <li>● Ahozko adierazpenak</li> <li>● Proiektuak</li> <li>● Banakako zein binakako eta taldeko lanak</li> <li>● Partaidetza</li> <li>● Teknologia erabilera egokia eta zuzena.</li> <li>● Jarrera</li> <li>● Euskararen erabilera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Probak: gramatika, idazmena, irakurmena, ahozkoa eta entzumena: 4</li> <li>● Proiektua: 3</li> <li>● Jarrera: 1</li> <li>● Euskararen erabilera 1</li> <li>● Irakur liburua 1</li> </ul> <p>OHARRA: <b>Proiektua</b> eta <b>Bestelakoak</b> arloetan ehunekoen aldaketak egon daitezke, ebaluazio eta edukien arabera. Aldaketak egotekotan ikasleei jakinaraziko diegu azken nota eman baino lehen.</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Ikasleren batek aurreko ikasturteetako ikasgaia gaintu gabe edukiko balu, lehenengo ebaluazioa gaintuz, ikasgaia gaintuko luke. Bestela, <b>urtarrilaren 15ean</b> aparteko azterketa egiteko aukera izango du, gaintugabe duen ikasgai hau gaintuzko. Horretarako, agindutako errefortzurako ariketak egin beharko ditu (PIREa). Aurreko ikasturtekoa gaintuzko % 40ko balioa izango du lanak.</p> <p>Ohiko ebaluazioan kurtso osoan landutako edukiak baloratuko dira.</p> <p>Ezohiko deialdian ikasturte osoan landutako edukien inguruko azterketa egingo da.</p>	

**OHARRAK / OBSERVACIONES**